



ISLA(DA)K

Jokoak eta proposamenak

SARRERA/ INTRODUCCIÓN

ISLA(DA)K. Jokoak eta proposamenak.-

Kontzertu bat emateko beste era bat da.

Kantak, pianoa eta hitzak entzuteaz batera, narratzaile baten pausoak, keinuak eta imintzioak ikusteko aukera dauka ikus-entzuleak.

Hamar kanta ezagun eta lau berri.

Guridi, Donostia, Garbizu, Aranbarri, Salaberri..., euskal maisu ezagun askoren doinuek iraganerako txangoa eskainiko dizute. Milena Perisicen musikak eta Yolanda Arrietaren hitzek, berriz, gaur eguneko bizipen eta zalantzetara itzuliko zaituzte.

Ordu beteko jokoak eta proposamenak dira.

Euskal musika eta kantua euskaraz dastatzeko beste... era bat..

Se trata de otra forma de dar un concierto.

El público, además de disfrutar de la voz y el piano, podrá presenciar los pasos, gestos e interpretación de una narradora que va hilando canción con canción.

Diez temas conocidos del cancionero vasco más cuatro piezas nuevas.

Maestros como Guridi, Donostia, Garbizu, Aranbarri o Salaberri nos ofrecerán un viaje al pasado. A su vez, la música de Milena Perisic y las palabras de Yolanda Arrieta nos volverán a trasladar a las dudas y vivencias de este siglo XXI.

Una hora de juegos y propuestas.

Otra forma de disfrutar de la música vasca y el canto.

ZERGATIAK/ MOTIVOS

Agian barne hutsuneak bete nahi ditugulako, edo agian gauza berriak proposatzeko, behar bada jokatzea maite dugulako..., ez jakin zergatik baina nahi bateratu batek elkartu gaitu.

Kantak hor zeuden; batzuk, behinik behin. Emakumeei buruzkoak aukeratu genituen eta, nola ez, emakume kontu horiek hitz ederrez jantzita eta doinu paregabe bez hornituta zeudenak. Bai hitzak bai doinuak gizonetzkoek eginak direla diote paperek. Behar bada, gizonetzko izenez mozarroturiko emakumeren bat ere ibiliko zen atzetik. Nork jakin, ordea?

Kontuak kontu, guk geure gustukoak aukeratu ondoren berriak egin eta guztiak lotzeko haria asmatu dugu; mozarroturik gabe, garenetik abiatuz, geure bizipen eta begiradez gauzak kontatuz eta kantatuz.

Agian esaten ez diren hutsuneak bete nahi ditugulako izango da. Behar bada, esaten ez diren gauza berriak proposatzeko...Edo, besterik gabe, guk geuk ere jokoan parte hartu nahi dugulako.

Tal vez sea por llenar algún vacío. O quizás, para proponer algo nuevo. O, tal vez, porque a todas nos gustan la ficción y el juego...

La cuestión es que no fue difícil juntarnos.

El azar nos ayudó un poco y el resto fue labor de equipo. Se eligieron canciones populares con temas de mujeres que tuvieran un bonito arreglo de piano. Luego creamos nuevos temas, vivencias presentes en contraste con versos de antaño; y, después, hilamos. Hilamos canciones con vivencias, versos con historias, palabras con miradas que van pasando.

Y, al final, pusimos nuestra voz, nuestros gestos, nuestras manos...

Tal vez sea por llenar algún vacío. O quizás, para proponer algo nuevo...

O, tal vez, porque también a nosotras nos gusta tomar parte en la ficción y en el juego.



FITXA TEKNIKOA

Idea originala eta zuzendaritza musikala: Itziar Barredo

Gidoia eta poemak: Yolanda Arrieta

Abesti berriak: Milena Perisic

Eszenatokian:

Aktoresa: Nagore Orbelzu

Abotsa: Garbiñe Abendaño

Pianojolea: Itziar Barredo

Zuzendaria: Jasone Alba

BIOGRAFIAK

Piano jolea: Itziar Barredo Cavero (Bilbo, 1968). Gazte-gaztetatik piano eta abesbatzako irakasle, Piano, Pedagogia, Kamarako musika eta Solfeo ikasketak egin ditu Bilbo eta Gasteizko Kontserbatorioetan. Hainbat kontzertu eman ditu estatu espainiarrean zein atzerrian belaunaldi berriko kantari eta musikariek, eta 1996tik hona beste zenbait operatan hartu du parte. 2002an ipar Amerikako unibertsitateetan ibili da Fernando Latorre baritonoa lagun duela Rafael Albertiren omenez “*La voz del mar*” programa eskaintzen, eta programa horren diskoa prestatzen ari da orain. 2003-2004 sasoiari Madrileko Teatro Real eta Bartzelonako Liceotik deitua izan da *Siegfried* eta *Götterdämmerung* operak jotzeko. Repertorioko irakasle dugu MUSIKENE, Euskal Herriko Goi mailako musika ikastegian, eta berea izan da **ISLA(DA)K. Jokoak eta proposamenak** ikuskizun honen hazia edo ideia.

Kantaria: Garbiñe Abendaño (Basauri, 1962). Jaioterrian bertan hasi zen musika ikasten. Ondoren, Bilbon Arriagako Juan Crisóstomo Goi Kontserbatorioan lortu zuen Gitarrako Titulu Gorena. Kontserbatorio berean eta Donostiakoan eskuratu zituen Solfeoko zein Pedagogia Musikaleko eta Kantuko tituluak ere, azken honi dagokionez, Karrera Bukaerako Sari eta guzti, gainera. Kantuko hainbat ikastaro eta klase magistraletan parte hartu du ondorengo maisuekin: Ana Begoña Hernández, Maite Aranguren, Gianni Mastino, Anna María Pizzoli, Vicente Laferla, Janos Acs, Ana Luisa Chova, Emilio Sagi, Rubén Fernández, Itziar Barredo, Mary Downing eta Alejandro Zabala.. Operan, berriz, pertsonaia hauek antzeztu ditu: Rigolettoren La Condesa de Ceprano eta La Bohemeko Mimi. Proiektuaren berri izateaz bat, atsegin handiz jaso du **ISLA(DA)K** honetako hitza eta musika uztartuz kantari aritzeko gonbitea.

Konposatzailea: Milena Perisic (Split, 1963). Pianoa, konposizioa eta abesbatzako zuzendaritza ikasi ditu Zagreb eta Michigango unibertsitateetan eta Tenerifeko Goi Kontserbatorioan aritu da irakasle MUSIKENEn hasi arte. Tenerifen bizi da 1988 urtea geroztik. Txiki-txikitatik musika eta poesia zalea, hitza, antzerkia eta musika lotzea maite du, bere ustez arteak muga oro gaindi dezakeelako, eta, bide batez, bai norbera eta baita ingurua ere aldatzen lagundu. Musika talde, abesbatza, lieder, haurrentzako musika edota zineko

film luze baterako musika konposatu du. Uda honetan Tenerifeko kontserbatorio irakasleei “*Jolastuz sortu*” ikastaroa eman die, antzerkia, perkusioa, konposizioa eta mugimendua lotuz, besteak beste, Jasone Alba Orbegozo kide eta **ISLA(DA)K** honetako zuzendariarekin.

Idazlea: Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (Etxebarria, 1963). Irakasle, Antzerki eta Kultur eta Gizarte Antropologiako ikasketak egin ditu. Literatura animatzaile eta telebistako gidolari gisa aritu da, eta bere idazlanen artean baditu haur eta gazteentzat idatzitako zenbait lan eta helduentzako nobela bat, *Jostorratza eta haria*, 1997eko “Irun saria” jaso zuena. Literatur alor gehienak ukitu ditu eta diziplina desberdinen arteko loturak ditu atsegin. 1995ean *Bihozkadak* idaztean “hitzaren eta mugimenduaren arteko zubia egitea” zuen helburu, eta 2003an ere helburu berberari eutsiz jarri dizkie hitza eta haria **ISLA(DA)K** ikuskizun honetako doinu, mugimendu eta kantuei.

Narratzailea: Nagore Orbelzu Lacoste (Donostia, 1971). Dantza klasiko, Tai Chi Chuan eta Antzerkiko ikasketak egin ditu. Madrilen ibili da antzezle, dantzari eta gorputz espresioa irakasle. Bertan zelarik jaso zuen Moratalazeko “errepertorio antzezle onenaren saria” *La vida es sueño* obrarengatik. 1995an *Bihozkadak* ikuskizunean parte hartu zuen dantzari eta aktore gisa, eta, zortzi urte ondoren haren isla(da)ri jarraiki datorkigu **ISLA(DA)K** honetara, bere hitz eta mugimenduekin kantua eta doinua uztartzera.

Zuzendaria: Jasone Alba Orbegozo (Donostia, 1957). Irakasle, Filosofia eta Tai-Chi Chuan ikasketak egin ditu. Dantza eta gorputz tekniken irakasle aritu da, alor askotako jendearekin. Azken bi urteotan MUSIKENEN dabil gorputz posturak bideratzeko eskolak ematen, eta alor arteko mestizaia eta inprobisazioa ditu gogoko. Uda honetan Tenerifen aritu da Milena Perisic eta beste kide batzuekin batera “*Jolastuz sortu*” aitzakia hartuta hainbat diziplina harremanetan jartzen. 1995an zuzendu zuen *Bihozkadak* haren izpiritua gogoan duela zuzendu du aurrean duzuen **ISLA(DA)K** hau ere, antzerkiari, poesiari eta dantzari, oraingoan musika eta kantua erantsiz.

BIOGRAFIAS

Pianista: Itziar Barredo Cavero (Bilbao, 1968). Profesora de coro y piano, compagina su trabajo con estudios superiores de Piano, Pedagogía, Música de Cámara y Solfeo. Es asidua acompañante de diversos cantantes e instrumentistas de la nueva generación con los cuales ofrece cantidad de recitales dentro y fuera del estado. Desde 1996 alterna trabajo de escena con correpetición en varias óperas y en 1999 debuta como Directora Musical de escenario y Maestro correpetidor. En abril de 2002 realiza una gira por diversas universidades norteamericanas con el barítono Fernando Latorre en homenaje al poeta Rafael Alberti con un programa titulado “*La voz del mar*”, que será llevado a disco en breve. Ha sido requerida por el Teatro Real y el Liceo de Barcelona como maestro repetidor para la temporada 2003-2004 en las óperas *Siegfried* y *Götterdämmerung*. Profesora de MUSIKENE, Centro Superior de Música del País Vasco, fue ella quien sembró la idea de este espectáculo **ISLA(DA)K. Jokoak eta proposamenak.**

Cantante: Garbiñe Abendaño (Basauri, 1962). Comenzó sus estudios musicales en Basauri y obtuvo el Título Superior de Guitarra en el Conservatorio Superior de Música Juan Crisóstomo de Arriaga de Bilbao. Perfeccionó dichos estudios en el citado Conservatorio así como en el de San Sebastián, y obtuvo los títulos de Solfeo, Pedagogía Musical y Canto, con Premio Fin de Carrera en esta última especialidad. Amplió sus estudios de canto con los maestros Ana Begoña Hernández, Maite Aranguren, Gianni Mastino, Anna María Pizzoli, Vicente Laferla, Janos Acs, Ana Luisa Chova, Emilio Sagi, Rubén Fernández, Itziar Barredo, Mary Downing y Alejandro Zabala. En el terreno operístico ha representado los personajes de “La Condesa de Ceprano” de Rigoletto y el de “Mimi” de La Bohème. Nada más conocer el proyecto accedió muy gustosa a poner su voz y su presencia en este espectáculo, **ISLA(DA)K.**

Compositora: Milena Perisic (Split, 1963). Desde muy pequeña manifestó su talento musical y su afición por la poesía. Ha realizado estudios de Piano, composición y dirección coral en las universidades de Zagreb y Michigan. Reside desde 1988 en Tenerife y ha impartido clases en el Conservatorio Superior de dicha ciudad hasta comenzar a hacerlo en MUSIKENE. Ha compuesto música para diversos conjuntos instrumentales,

música coral, lieder, música para niños y la banda sonora de un largometraje. Cree profundamente que el arte puede trascender la mera expresión creativa del que lo realiza e incluso puede llegar a convertirse en vía de estímulo para una transformación personal y social, por lo cual, últimamente trabaja en obras que le permiten abarcar diferentes facetas creativas. Fruto de ello, el curso “*Crear jugando*” impartido este verano en Tenerife en colaboración, entre otr@s, de Jasone Alba Orbegozo, compañera de trabajo y directora de este **ISLA(DA)K**.

Escritora: : Yolanda Arrieta Malaxetxebarria (Etxebarria, 1963). Ha realizado estudios de Magisterio, Teatro y Antropología social y cultural. Ha impartido talleres de teatro y escritura y ha trabajado como guionista de televisión. Ha publicado varias obras de literatura infantil y juvenil tanto de narrativa como de poesía o teatro, así como la novela *Jostorratza eta haria*, “premio Irun de 1997”. De espíritu inquieto, busca construir puentes. Tejió el guión de aquel *Bihozkadak* de 1997 uniendo voz y movimiento, y el 2003 vuelve a hacerlo en este espectáculo de **ISLA(DA)K**, a la vez que incorpora algunos poemas en forma de canción.

Narradora: Nagore Orbelzu Lacoste (Donostia, 1971). Ha realizado estudios de Danza clásica, Tai Chi Chuan y Teatro. Ha trabajado como bailarina, profesora de expresión corporal y como actriz en Madrid, y ha conseguido el 1º premio de actriz de reparto en el certamen de teatro “*La vida es sueño*”. En 1995 formó parte del espectáculo *Bihozkadak*, como actriz y bailarina, y al cabo de ocho años vuelve a hacerlo en **ISLA(DA)K**, fiel a su rol de unir y dar color a la palabra y el movimiento.

Directora: Jasone Alba Orbegozo (Donostia, 1957). Realizó estudios de Magisterio, Filosofía y Tai-Chi Chuan. Ha trabajado en varios campos que abarcan desde el teatro hasta el baile o el canto. Colabora desde hace dos años en MUSIKENE donde imparte técnicas de reconducción postural y respiración así como de técnica corporal. El pasado verano formó equipo bajo el lema “*Crear jugando*”, en el curso impartido a profesores de Conservatorio, junto a Milena Perisic y otr@s. Tras ocho años vuelve a la dirección con este espectáculo de **ISLA(DA)K**, reflejo de aquel *Bihozkadak*, pero, esta vez lo hace incorporando música y canto en directo.

PROGRAMA

Tituloa

- | | |
|---------------------------------|------------------------|
| 1. Loa-loa | F. Lavilla |
| 2. Aurtxo, aurtxo | S. Salaberri |
| 3. Izarretan | M. Perisic (Y.Arrieta) |
| 4. Gori-goria | M. Perisic (Y.Arrieta) |
| 5. Ez dot ziñesten | P. Sorozabal |
| 6. Rapsodia vascongada (pianoa) | J.M.Usandizaga |
| 7. Ala baita | J. Guridi |
| 8. Lurraren pian | A. Donostia |
| 9. Nik badut maiteño bat | J. Canteloube |
| 10. Ikusi nuanian | T. Garbizu |
| 11. Iruten ari nuzu | A. Donostia |
| 12. Amak ezkondu ninduen | J. Aranbarri |
| 13. Zortziko (pianoa) | J. Guridi |
| 14. Betiko | M. Perisic (Y.Arrieta) |
| 15. Bart hamarretan | S. Salaberri |
| 16. Isladak | M. Perisic (Y.Arrieta) |

ABESTIEN HITZAK /LETRAS DE LAS CANCIONES

1 LOA, LOA.

Loa, loa, txuntxurun berde
Loa, loa, masusta
Aita gurea Gasteizen da
Ama mandoan hartuta

2 HAURTXO, HAURTXOA

Haurtxo, haurtxoa, izu egin lo.
Hemen nauzu zu zaintzeko.
Izu egin lo, aita urrun da,
Euskadiren zerbitzuko.
Zure ondoan, ama daukazu!
Ez zaitut inoiz utziko.
Haurtxo, haurtxoa...
Izu egin lo,
Aita preso da,
gero zu libre izateko.
Egun batean etorriko da
gurekin bizi izateko.
Haurtxo, haurtxoa...
Izu egin lo,
Ilunagatik, zeruan izar bat dago.
Milaka mila izango dira
Aita etorri eta gero.

3 IZARRETAN

Nork esan behar dit etxetik urrun joan naitekeen ala ez, lapiko espresa sutan utzirik?
Nork esan behar dit neure ametsen zerbitzuan ibiltzerik ba ote dudan ala ez, seme-alabak
eta senarra etxean utzirik ?
Nork esan behar dit tabernan mus partidan egoterik badaukadan ala ez, umeari titia ematen
diodalarik?
Nork esan behar dit izarretan bizitzeko aukerarik badudan ala ez, nik neuk izan ezik?
Inork ere ez.

4 GORI-GORIA

Laino berria
lauso bustia,
dir-dir egin zenuen
ene gogoan

Izana baino ez zinen
laino gorria

zurea egin zenuen
ene desira.

Heldu zinen enera
eta tak!, sartu zinen
ene barruan.

Lausoa baino ez zinen
laino gorria,

Ene desira
Ene maitea.

5 EZ DOT SINESTEN

Ez dot sinesten gabeko ilargi txuria
zure begi beltz horiek bakarrik, maitea,
sinesten dodaz
ni(ret)zat ilargia direnak.

Ez dot sinesten eguzkiaren argia
zure bihotzean bakar, bakarrik, kuttuna,
sinestuten dot,
eta beste eguzkirik ez daukot.

gogo gaiztoa eta gaiztokiko nekeak ere ez dodaz sinesten
bakar bakarrik zure bihotzan, eta begi horiek
sinesten dodaz sendoki.

6 HALA BAITA

Hala baita, dolu egingarri,
amodioetan denari.

Beti penaz bati eramatz
gauak eta egunak.

Ez deia bada pena,
ene bihotzean dena?

Nihork ezin dezake adi
ene hats beherapenak

Maite bat ezin konbertituz
nik sofritzen dudana.

7 LURRAREN PIAN

Lurraren pian sar nindateke, maitia, zure ahalgez!

Bost pensaketan eginik nago, zurekin ezkondu beharrez.

Deusetan ere etzaitut nahi

Bortxatu amodiuan:

txangri huntarik hiltzen banaiz satisfatzaite goguan

Maresurik aski izanen naiz nihaur bakharririk munduan!

8 NIK BADUT MAITEÑO BAT

Nik badut maiteño bat,

Oi! Hura nulako?

Ez da ttipi, ez handi, bai bien arteko.

Begia du ederra, oro amorio:

bihotzean sartu zaut, ez baitzaut jalgiko!
Amodioaren pena, oi! Pena handia!
Amodioa ezpalitz den bezain krudela.
Ez nezakezu erran maite zaitudala.
Zeruan zenbat izar, maitia, ahal da?
Zure parerik ene begietan ez da:
neke da phartitzia, maitea, enetzat:
Adio nik derautzut, denbora batentzat.
Munduan zenbat urrats, oi! Dudan egiten?
Ez ahal dira oro alferrak izanen
Jendek erranagatik guretako elhe,
Mitea, trufa nainte, zu bazindut nere!

9 IKUSI NUANIAN

Ikusi nuanian nik zure begia,
iruditu zitzaidan, maitia,
anpoloi gorria.
Ikusi nuanian zure ile latza
iruditu zitzaidan, maitia,
sorginen erratza.
Ikusi nuanian nik zure sudurra,
iruditu zitzaidan, maitia,
lukaintza muturra.
Ikusi nuanian nik zure kokotza,
iruditu zitzaidan, maitia,
gaztaina morkotsa.

10 RUTEN ARI NUZU.

Iruten ari nuzu,
khilua gerrian.
Ardura dudalarik,
nigarra begian.

11 AMAK EZKONDU NINDUEN

Amak ezkondu ninduen
hamabost urtekin
Senarrak bazituen
laurogei berakin.
Oi! Ai! Neskatile gazte, agure zaharrakin.
Ama, zertarako det nik agure zahar hori?
Hartuta lehiotikan jaurti behar det nik.
Oi! Ai! Neure lehiotikan jaurti behar det nik
Neska, hago isilikan, abertasa den hori;
epezu igaro hitzan urte bat edo bi
hori hilez geroztik biziko haiz ongi.
Deabruan darama oilar urtetsua
Ha baino nahiago det nik
nere aukerakoa
Oi! Ai! hogeitun bat urteko gazte lorekoa

12 BETIKO

Betiko maiteko ninduzula
esan zenidan,
eta musua ahaztu zitzaizun
bidean.

Betiko maiteko ninduzula
baieztatu zenidan,
eta ezteiak ospatu zituen
arruntasunak.

Betiko maiteko ninduzula
zin egin zenidan
eta irriak alde egin zuen guretik
hegazkinean .

Betiko maiteko ninduzula
agindu zenidan
baina ahaztu egin zitzaizun galdetzea
betiko gura ote zintudan
ene bihotzean.

13 BART HAMARRETAN

Bart hamarretan dontzella nintzen,
hamaiketako, senarra,
gabeko hamabi santuetako gelditu nintzen bakarra.
Sentimendua, sentimendua,
Handiagoa penea.
Ordu beteko senarragatik,
alargun izan beharra.
Ai, nire pena eta nahigabea,
Ai, amodio dohakabea.
Sentimendua, handiagoa mingarra.

14 ISLA(DA)K

Ilusio berria askatasuna;
teilatu irekia,
ate gardena

Udaberri berria ilusioa;
egunsenti amaigabea,
goizalde luzea.

Askatasun berria udaberria;
erreka loretsua,
belardi urtsua

Teilatu irekia ilusioa;

**ate gardena,
askatasun berria**

**Egusenti luzea udaberria;
ilusio amaigabea,
goizalde berria**

**Erreka urtsua askatasuna;
belardi loretsua,
udaberri berria**